

II SORGINAK 3

JOSEPAK.—Bai, nihun balinbada prendarik, hoik prendak dire segurki.

BENITAK.—Zer laparrak! Othaskaz othaska onthutsik azken Judizioraino ibiltzea goxoago liteke, oren laurden bat horien aho-mihietan erabilia izaita baino!

KATIXAK.—Aho-mihiak! Eztenak erran behar zinueke, ezen hoik ez dire jendeak, bainan suge-biperak.

LUIXAK.—Ederki diozu, Katixa. Bainan gehiagokoak erel bide dire oraino. Suge biperaren xixtakoak doi doia orratz punttaren sistakoa egiten du. Horien asikiak puska ere eremaiten du maiz, zakur errabiatuarenak bezala.

KATTALINEK.—Nago nola ez diren behin ere phozoin-datu beren aho gozoarekin berarekin! (Orok hirri egiten dute solas hortaz.)

XOBADINAK.—Bai hala da, saltsa xarra egin lezake norbaitek, horien mihia xal mihiarekin nahas baleza uste gabeta... (Orok hirri.)

JOANNAK.—Ori, andre Xobadina, behin baino gehiagotan egona naiz nere buruarekin, nola onhartzen dituzun zure etxean, ez bakarrik artho xuritzetan, gu orai bezala, bainan ere Jainko onak egiten dituen arrats guziez! Zuen egurrean berotzea laket zaiote, oihanak murriztuz geroz...

BENITAK.—Ez ahal dute gaizki hirri egiten, kafe ttottaño bat izaiten dutelarik...

KATTALINEK.—Atso tzarrak eta ez bertzeak! Hortaz ginuen solasa, zuek sartzearekin, eta ez ginen guti erhotuak.

XOBADINAK.—O! kafe baino xikore gehiago izaiten dutela, gure etxean, fida zaitte niri...

KATIXAK.—Zunulakarra ere sobra da horientzat, Xobadina!

XOBADINAK.—Hots! gaixtoak zaitte gaur, sobraxko zinez!

JOSEPAK.—Gaixtoak? sobraxko? Ai, ei, ai! Gaixo bildotxak!... Miserere mei! (Orok hirri.)

XOBADINAK.—Eta gero, uste baduzue gogo onez onhartzen ditugula Bordaxurian! Ongi enganatzen zaitze. Ezin berazean diotegu athena zabaltzen, Zimitzak ere ezin bertzean atxikitzen dira etxean, Josepa!

JOSEPAK.—Ori, Jainkoari esker, ez dugu zimitzarik etxean, bainan miliun bat zimitza onhets netzazke Ithurburuan, Maria eta Xaneta kanpo egoitekotan! (Orok hirri.)

XOBADINAK.—Hobe liteken, uste dut nik ere. Bainan, zer nahi duzue, haurrak, hoilakoekin etsai baino hobe da, nere arabera, ez... adixkide baitezpada, bainan etsai-gabe...

LUIXAK.—Eta cgiazki, ama, horiek dire, horiek, gaixtoak, egiazki gaixtoak!...

KATTALINEK.—Bai, hala da. Herri guzia nahasia daukate. Egia eta gezurra, oro bardin on zaizkote. Hunek hau egin, harek hura ez egin! Nardagarri ere da, arimaz egia! Herriko bi gazteek elgar ikusten badute onez onean, gure atsoek ez dute deskantsurik bi adixkideak nahasi arte. Eta gazte hoik esposatu balinbadire, oi, Ama! hiru ilabete iragan ere gabe, Phazko anik Erramu baino aintzinago, xixtuz eta kantuz hasten dire liztor pullit hoik!

- ① Zertako Xaneta eta Maria joratuak dira?
- ② Idazkian zer emaita du joratzearen gogoramenak?
- ③ Xobadinak joratzen ditu? Nola?

III ADITZ IKASKUNTZA

- 31. Behar zinueke 32. Egin lezake
- 33. Hobe liteken 34. Nahasia daukate

31 UKAN Conditionnel Present.

O.S.	O.P.
Nik nuke (je l'aurais)	nituzke (je les aurais)
Hik nuke	hituzke
Zuk zinueke	zinituzke
Harek nuke	hituzke
Guk ginueke	ginituzke
Zuek zinuekete	zinituzkete
Heiek luke etc	hituzkete etc

32 UKAN Conditionnel Futur

O.S.	O.P.
Nik ukan nezagake (je l'aurais)	ukan nitzagke (je les aurais)
Hik " nezagake	" hitzagke
Zuk " zinezagake	" zinitzagke
Harek " lezagake	" hitzagke
Guk " ginezagake	" ginitzagke
Zuek " zinezakete	" zinitzagkete
Heiek " lezakete etc.	" hitzagkete etc.

33. IZAN Conditionnel Present.

Ni (izan) nintzake	= je serais
Hi (izan) hintzake	= tu serais
Zu " zintzake	= vous seriez
Hura " litzake	= il serait
Gu " gintzake	= nous serions
Zuek " zintzake	= vous seriez
Heiek " litzake	= ils seraient